Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mariasun Plazaola Gallastegi

Bergara, Gipuzkoa (1933)



Aurkibidea

Biografia



Zumarragan jaio zen arren, hamabost hilabete zituela aitona-amonengana eraman zuten Bergarara, eta harrezkero bertan bizi izan da. Aita zumarragarra eta ama bergararra zituen. Pilotaleku ondoko etxe batean bizi zen, geroago errepidea egiteko bota zutena. Etxearen beheko solairuan eskola pribatu bat zegoen, Kontxita Maiztegi maistrarena, eta bertan ikasi zuen Mariasunek hamabost urtera arte. Gero kontabilitatea ikasi zuen beste hiru urtez. Ikasketak bukatu eta Idarretaren ehun-biltegiko bulegoan hasi zen lanean, Bergarako ehunak saltzen hasieran. Geroago Aramaion egindakoak saltzen zituzten. Mariasunek Bergarako ehungintza lantegiak gogoratzen ditu. Bergarako pilotalekuan partida garrantzitsu asko jokatzen ziren garaia ere gogoan du.

Zintak

BER-278

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-12-02
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Umetan Kontxita Maiztegiren eskolan

- **Erref**: BER-278/003
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:02:19. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Mariasun umetan bizi izan zen etxeak (pilotaleku aurrean zegoen) hiru solairu zituen eta behean nesken eskola zegoen. Adin desberdinetako neskak elkartzen ziren bertan. Kontxita Maiztegi bergararra zen irakaslea, oso irakasle ona eta zuzena. Eskolan gaztelaniaz ikasi izan zuen beti.

2. Jaunartze txikiaren eta handiaren arteko aldea

- **Erref**: BER-278/005
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:04:42. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Santa Marina elizan egin zuen jaunartze txikia zazpi urterekin; jaunartze handia, berriz, 11 urterekin. Jaunartze txikian lehenengo aldiz hartzen zen Jauna eta errezoak ikasi egin behar izaten ziren ordurako. Bigarren jaunartzea konfirmazio antzekoa izaten zen.

3. Kontxita Maiztegik frantsesa irakatsi nahi

- **Erref**: BER-278/009
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Eskolako lehenengo urteak Kontxita Maiztegi irakaslearekin egin zituen. Frantsesa irakatsi nahi izan zien, eskolako orduetatik kanpora, baina beraiek utzi egin zuten, nekeza zela eta.

4. Eskola eta dotrina gaztelaniaz; auzoetakoek euskaraz

- **Erref**: BER-278/013
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:11:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Euskara ez duela eskola mailan ikasi dio, dena gaztelaniaz ikasten zutelako. Dotrina ematera abade bat etortzen zitzaien, baina hura ere gaztelaniaz ikasten zuten. Hala ere, gogoan du auzoetatik etortzen ziren ikasle batzuei dotrina euskaraz irakasten ziela irakasleak. Etxean errezoak euskaraz egiten zituzten.

5. Don Eliasengana, kontabilitatea ikastera

- **Erref**: BER-278/016
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:15:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
15 urterekin don Elias maisuarengana joan zen kontabilitatea ikastera, lanerako garrantzitsua zen eta. Hiru urte inguru egingo zituela dio. 19 urterekin lanean hasi zen.

6. Bergaratik Zumarragara trenean

- **Erref**: BER-278/018
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:16:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Sarri joaten zen Zumarragara, gurasoak ikustera, batez ere izebarekin. Autobusak ere bazeuden, baina normalean "Goiko trena" hartzen zuten. Mendialdetik joaten zela azaltzen du. Antzuolan geltokia zuen.

7. Santa Marinatik Agorrosinera ortuak eta soroak

- **Erref**: BER-278/023
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:19:22. **Bukatu**: 00:20:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Santa Marinatik beherako lur-sailak ortuak ziren garai batean. Lur-sail batzuk baserritarrenak izango ziren, baina kaleko jendeak ere ortu txikiak izaten zituen bertan. Seminario inguruan ere ortuak zeuden. Etxe bakanak zeuden han eta hemen, baina gerora egin ziren kaleko eraikuntza asko.

8. Idarreta oihal-biltegian lanean

- **Erref**: BER-278/026

- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:21:48. **Bukatu**: 00:23:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Idarreta oihal-biltegian hasi zen lanean 18 urterekin. Hasieran biltegia bakarrik zen. Gerora, euren lantegia Aramaioko "Textil Ibarra" oihal-lantegiarekin elkartu zen. Orduan, bertan egiten zuten ehuna eta baita tindatu ere. Oihalak inguruetan banatzen ziren, asko oihal-dendetara.

9. Inguruetako garraiolariak

- **Erref**: BER-278/028
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:24:25. **Bukatu**: 00:25:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
`Azkar´ garraiolariak; oso ondo lan egiten ei zuten. Goierri aldekoak zirela dio. Bertan ere bazeuden garraiolariak, "Transportes Garitano", esaterako. Ze ingurutara egiten zituen bidaiak. Beraiek material gehiena kamioietan bidaltzen zuten; trenez oso gutxi.

10. Garai bateko bi trenen ibilbideak

- **Erref**: BER-278/029
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:25:31. **Bukatu**: 00:26:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Garai bateko bi trenen ibilbideak; Gasteiztik zetorren trena eta Zumarragatik zetorrena Mekolalden elkartzen ziren. Handik Maltzagara. Maltzagatik bueltan berriz Mekolalden banatzen ziren. "Tren vasco-navarro"a Gasteizera joaten zen, Leintz Gatzagatik zehar. Han beste tren bat egoten zen, Lizarraraino joaten zena.

11. Bergaran oihalgintza lantegi ugari

- **Erref**: BER-278/032
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:27:53. **Bukatu**: 00:29:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:
Idarreta oihal-biltegitik inguruko herrietara saltzen zuten gehienbat oihala: Arrasate, Oñati, Donostia, Eibar... Bergaran oihalgintza lantegi ugari zeuden: Algodonera, Mobilla (Antzuolarako errepidean), Lasagabaster, Aranzabal, Oregi, Narbaiza... Euren biltegian, hasiera batean, oihala erosi eta inguruko lantegiren batean tindatzen zuten, gero saltzeko. Gerora, Aramaioko "Textil Ibarra"rekin bat egin zuten eta bertan egiten zen dena.

12. Mendirako joerarik ez; hondartzara gehiago

- **Erref**: BER-278/036
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:31:07. **Bukatu**: 00:32:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Erromeriaren bat baldin bazegoen joaten ziren mendira, San Martzialera edo Elosura, adibidez. Baina bestela ez zuten mendirako joerarik. Udaran hondartzara joaten ziren; normalean Debara, baina baita Zarautzera ere. Debatik Ondarroara ere joaten ziren.

13. Musika Bergarako plazan; mutilak dantza eske

- **Erref**: BER-278/038
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:34:47. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Ez ziren asko joaten inguruko herrietara jaietan. Bergaran plazan musika egoten zen. Neskak erdian ibiltzen ziren dantzan eta mutilak ertzetik etortzen ziren dantza eskatzera. Kalabazak ere ematen zituzten, dantza-eske zetorrena gustukoa ez bazen. Plazan mutilek ez zuten ordaindu behar izaten dantza egiteagatik, baina erromerietan bai. Mutilek etxera lagundu izan zioten, baina gero bakoitza bere bidetik joaten ziren. Ezkongabea da.

14. Bizimoduaren aldaketa; gaur egun erraztasun handiagoak

- **Erref**: BER-278/041
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:37:38. **Bukatu**: 00:38:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Bizimoduaren aldaketa. Gaur egun erraztasun handiagoak daude. Garai

batean dena zen bekatu edo debekatuta zegoen, bestela. Ikasketetarako ere askoz erraztasun handiagoak daude gaur egun.

15. Eliza barruan familia bakoitzak bere hilarria

- **Erref**: BER-278/043
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:39:53. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Garai batean eliza barruan hilarriak egoten ziren. Zenbakia izaten zuten eta familia bakoitzak berea zuen. Norbait hiltzen zenean, manta beltza jartzen zen. Domu Santuetan ere manta, kandelak eta argizaiola ipintzen ziren. Aldea egoten zen batzuetatik besteetara. Aberatsenek, aristokraziakoek adibidez, gurutze gorria edukitzen zuten manta gainean.

16. Erlijioak ez zituen hain estu hartu

- **Erref**: BER-278/046
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:44:05. **Bukatu**: 00:45:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Beraiek ez zuten izaten arazorik abadearekin mutilekin dantza egiteagatik. Estuegi hartu izan balituzte, ez liratekeela elizara joango dio. Hala ere, leku batzuetan, itxuraz, estuago hartzen zuten jendea. Entzunda dauka Aizpurutxon Azkoitiko partean debekatuta zegoela dantza egitea Garizuma sasoian eta Bergarako partean, berriz, libre.

17. Bi zinema Bergaran; pelikulak koloreen arabera sailkatuta

- **Erref**: BER-278/048
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:46:14. **Bukatu**: 00:48:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Bi zinema zeuden Bergaran: "Novedades" eta "Accion"a, azken hau elizarena. Antzeko pelikulak botatzen zituzten bietan. Koloreen araberako sailkapena izaten zuten. Gorria izaten zen okerrena.

18. Zinemara joateko, pelikularen koloreari begiratzen zioten

- **Erref**: BER-278/050
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:48:34. **Bukatu**: 00:49:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinemara joaten zirenean, pelikulak zuen koloreari begiratzen zioten. Zuria edo horia bazen, joaten ziren; berdea edo gorria izanez gero, ez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com